

GIPUTZA.—Jatorrizko adierazpenetik sortutako deiturak anitz badira, bereziki herbesteetan izengoiti erako erabileratik datozenak. Euskal Herriko lurraldeetarikorik anitz zabalduak dira, deituretan (eta, arren, irakurleak har dezala deitura apellitdotzat, berriki asmatutako abizena baino jatorragoa denez); deitura zabalduok: Nabarro, Navarro, Alava, Bizkai eta Vizcaya, Zubero eta Sola (Sola, Zuberoa bait da erromantze zaharrear) maiz aurkitzen ditugu agiri zaharretatik gure egunkarte. Baina era hortan ez zaigu agertzen Gipuzkoarik eta inoiz pentsatu dugu gure probintzia honen izena oso berandukoa delako edo herbesteetan Vizcaino bezala hartu zutelako. Gaztelan hala zitekean, Sancho de Azpeitia el vizcaíno Cervantes-ek berak dakarrenez. Baina, aintzinakoa izatearen arrazoia ez da aski, zeren Lapurdikorik ez dugu aurkitzen eta Erromatarren

garaitik bazen Akitania partean Lapurdum bezala ezagutua. Berez, zahartasunik ezin uka.

Gipuzkoarrei ordea, Gaztelan ez, baina Bizkai aldean maizenik «giputza» edo «kiputxa» deitzen zaie, «probintzianoa» edo deitzen ez zaionean. Jakina da Nafarroan eta Bizkaian aspalditikakoa dela «Probintzia» eta «probintzianoa», zeren ez bait zen alperrik Espainian Gaztelako erregeen lehen Probintzia. Baina, Bizkaian, ezinezkoa zen Gaztelanian bezala gipuzkoarrei «vizcaíno» deitzea, eta hara nola aurkitzen ditugun XIV eta XV. mendeetan izengoitikako Giputz deiturak. Gipuz (Giputza noski) deitura horiek Juan Carlos de Guerra-ren *Oñacinos y gamboinos, rol de benderizos vascos* (1930) liburuan datoz. Lekukotasun hori 95. orrialdean ikus genezake, era honetan:

«GUIPUS — Juan Pérez el, firmó las treguas de Abendaño con Bilbao en 1353, en unión de Martín Guipuz.

GUIPUZA — Joan, Gamboíno, morador de Ea, que concurrió al ataque de Mondragón en 1448».

Beraz, hara hor mende baten distantzian hiru persona *Gipuz* (Giputza) deituradunak. Nonbait, bizkaitarrentzat ezinbestekoa zelako. Hortik hiru lekuko: Juan Pérez Guipus, Martín Guipuz eta Joan Guipuz.